



2014ko abenduaren 27a, larunbata ::: 48 zk. ::: www.kronika.net :::

■ ASTIGARRAGA

Euskeraren aldeko lasterketa, gaur

'Euskaraz bizi nahi dut!' eta Inuxente Eguneko lasterketa izango da. 16:30etan txikien txanda izango da eta 17:30etan, helduena. 16:00etatik aurrera, izen ematea.

HERRI lasterketa antolatu dute gaur Astigarragan. *Euskaraz bizi nahi dut!* eta Inuxente Eguneko lasterketa izango da Udaleko Kirol Sailak eta Mundarro kirol elkarteak antolatuta. Adin tarte guztientzako izango da aukera eta 16:30etan, txikien txanda izango da. 17:30etatik aurrera, berriz, 17 urtetik gorakoak aterako dira. Joseba Barandiaran plazan jarri dute irteera eta helmuga, eta izena bertan eman behar da, 16:00etan. /6



■ HERNANI

Selekzioaren partidura, autobusa

Igandean euskal selekzioak futbol partida jokatuko du Bilbon, eta Hernanitik autobusa aterako da, 17:00etan Floridako elizatik. Izena emateko deitu: 665 752 072. ||

■ ASTIGARRAGA

Plenoa, asteartean

Ez ohiko Plenoa izango da asteartean, 19:00etan. Besteak beste, dirulaguntza arautegia bozkatuko dute, alokairu soziala bultzatzeko. /6

■ GOIZUETA

Umeentzako tailerrak, etzi

Eguberrien barruan, Goizueta eta Arano umeentzako tailerrak antolatu dituzte astelehenetik asteazkenera. /7

■ ARANO

Urte Zaharreko koplak, gogoan

Urte Zahar gauean koplak kantatzen zituzten garai batean Arano. /7

■ EREÑOTZU

Ametsen kriseiluak, asteazkenean

Ereñotzun ere, Ametsen kriseiluak botako dituzte zerura asteazkenean. Bihar da kriseiluak enkargatzeko azken eguna. /8

«Dispertsioarekin bukatzeko urtea da 2015»

ESPETXE politikarekin bukatzeko eta presoen eskubideak errespetatzea lortzeko konpromisoa hartzeko deia egin zuten atzo Hernaniko preso eta iheslarien senideek. Zapi-kate bat osatu zuten, Plazatik Plaza Berriraino, Andre Kalen barrena, eta Kale

Nagusian gora, Plazaraino. «Konpromisoa denok hartu behar dugu. Dispertsioarekin bukatzeko urtea da 2015».

Horrekin lotuta, dei egin zuten parte hartzeko biharko Martuteneko espetxerako martxan (11:30etan Zinkoeneatik abiatuta),

eta urtarrilaren 10ean Bilbon egingo den Manifestazio Nazionalan.

Bestalde, Ernaik *11 konpromiso askatasunerantz* ekimena aurkeztu zuen atzo, preso gaixoen alde. Baraualdia hasi zuten, eta gaur jarraituko dute, ekinga gehiagorekin. ||

GAUR KRONIKAN

Hernani /2-5

Berto jaialdia, igeriketa...

Astigarraga /6

Goizueta /7

Arano /7

Ereñotzu /8

CANGAS DE ONIS (Asturias) 2 gau 3* Hotelean, gosaria barne	68 ⁹⁰⁰ €	EGIPTO Martxoaren 18an - Madrilik hegaldia 4 gauko kruzeroa pentzio osoan + 3 gau El Cairo gosaria + bidaiak barne	539 ⁹⁰⁰ €
SANTILLANA DEL MAR (Cantabria) 2 gau 2* Hotelean pentzio erdian + SPA	82 ⁹⁰⁰ €	AZORES Martxoaren 31ra arte Bilbotik hegaldia + 7 gau 3* hotelean gosaria barne	645 ⁹⁰⁰ €
AREATZA (Bizkaia) 66 urtek gorakortzat, Utarrila eta Otsailaren 5 gau 3* Bahuetxean pentzio osoan + SPA	225 ⁹⁰⁰ €	MARRAKECH Aste Santuan Apirilaren 1etik 6ra Bilbotik hegaldia + 5 gau 3* Hotelean pentzio erdian	769 ⁹⁰⁰ €
LISBOA Urtarrilaren 18tik 19ra Bilbotik hegaldia + 3 gau 3* Hotelean gosaria barne	270 ⁹⁰⁰ €	CABO VERDE Martxoaren 27ra arte Bilbotik hegaldia + 7 gau 3* Hotelean gosaria barne	799 ⁹⁰⁰ €
AMSTERDAM Otsailaren 20k 5era Bilbotik hegaldia + 3 gau 3* Hotelean gosaria barne	292 ⁹⁰⁰ €	 <p>Aurtengo Gabonelan bidaiak oparitu!</p>	
TENERIFE Urtarrilaren 30etik Otsailaren 6ra Bilbotik hegaldia + 7 gau 4* Hotelean pentzio erdian	443 ⁹⁰⁰ €		
SALOU Aste Santuan Apirilaren 2tik 6ra 4 gau 3* hotelean pentzio osoan 2 heldu + 2 ume	450 ⁹⁰⁰ €		
GRAN CANARIA Urtarrilaren 25etik Otsailaren 1era Bilbotik hegaldia + 7 gau 3* Hotelean pentzio erdian	460 ⁹⁰⁰ €		

Aukera gehiago
gure bulegoan eta
www.hernanibidaiak.es
www.bidabilia.com

HERNANI
BIDAIAK
Uhiela 6
943 33 00 49

JARRAITU:   

■ BERTSOLATA

Bertsotik bertSORA, utzi publikoa gustora

Horixe izango dute helburu gaur Biterin bertso saioa eskainiko duten puntako 6 bertsolariek; publikoari gozaraztea. Arratsaldeko 19:30etan hasiko da jaialdia, eta sarrerak bertan egongo dira salgai.

SEI bertsolari haundi elkar-tuko dira gaur, 19:30etan Biterin, saio eder bat eskaintzeko: Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Sustrai Colina, Nerea Elustondo, Arnaitz Lasarte eta Jexux Mari Irazu. Gai-jartzaile

lanetan, berriz, Agin Laburu ariko da.

Helburu garbia izango dute denek: ahalik eta bertsorik ederrenak bota eta publikoa txaloka jartzea. Sarrerak saioaren aurretik jarriko dira

salgai, Biteri kultur etxean bertan.

Saio berezia, asteartean
Ekitaldiz betetako Bertsolata antolatuta du aurten ere Hernaniko Iraulio Panttalone

bertso elkarteak. Gaurko bertso jaialdiaz gain, beste ekitaldi berezi bat ere izango da.

Asteartean, **Fernando Amezketarra, 250 urte** emeraldari berezia eskainiko dute Eñaut Agirrek, Aitor Atxegak

eta Imanol Kamiok. 1764an jaio zen Fernando Amezketarra, eta haren omenezko saioa izango da; haren bertsoak kantatuko dituzte, gitarra eta pianoarekin lagunduta. Biterin izango da, 19:00etan. ||



■ GABONETAKO SASKIAK

Saski bat banatzeko, oraindik

Berriak eta Kronikak elkarlanean zozketatutako Gabonetako hiru saski banatu dira dagoeneko: Vania, Amaia eta Lurdes izan dira saridunak. Baina beste saskiaren irabazlea ez da azaldu, eta berriro zozketatuko da. Horretarako, erri-fak Kronikara eraman, izena eta telefonoa idatzita; abenduaren 31 arteko epea dago. Zozketa urtarrilaren 2an egingo da. ||

■ Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:00ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

☞ JASOTA BEZALA

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak.

Nekagarria

Honi eta beste komunikabide batzuei eskerrak eman nahi dizkiet, Hernaniko Kaxkoko KALEKO ZARATA dela eta, jaso dugun babesagatik. Onartu beharra daukat pasa dela denbora denuntziatzen hasi nintzenetik, komunikabide honetan eta beste batzuetan, nere izenean edota presidente naizen bizilagunen komunitatearenean, Andrekaleko goiko zonaldeko (lehen Kardaberaz) bizilagunek asteburuetan sufritu behar izaten dugun kalbarioa. Batez ere, larunbat gauetan.

Denuntzia horiek errepikatzeak nekagarri egiten gaituela ematen du. Ziur esan dezaket ez dela ezer kaleko zarata eta desordenarekin alderatuta; afalondoren hasten da, eta goizeko laurak edo bostak arte luzatzen da, aurreko larunbatean, aste batean eta hurrengoan, urtero, eta duela urte askotatik. Iskanbila errepikatu eta nekagarri hori da benetan oreka puskatzen duena dibertsioaren eta atsedenaren artean, Txotx faltsuaren gunea deitzen diogun honetan.

Ze ederra izango litzatekeen bisitatzen gaituzten

gazteek gu ulertzea eta gure etxean atsedean hartu nahi dugunok errespetatzea, guk beraien dibertsiorako desioa errespetatzen dugun moduan. Ez diogu denuntziak jartzeari utziko lo egin nahi dugunon errespetua lortu arte. Argi dago desio dugun dibertsioaren eta atsedena- ren arteko oreka ez dugula puskatzen ohean gaudenok.

Animo gazteak, denon artean lortuko dugu eta! Kaxko bizirik, gabeen kalean ixilik.

Ion Azpiazu Goñi, Andrekale 2ko bizilagunen komunitateko presidentea

ESKERTZA

Inaxio Barrenetxea Agerrezabalaga

Orain egun gutxi hil zen

- Goian bego -

Haren amazteak, seme-alabek eta gainerako ahaideek eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera gure ondoan izan zareten guztiei eta baita elizkizunetara etorri zineten guztiei ere.

ESKERRIK ASKO GUZTIAGATIK

Hernanin, 2014ko abenduaren 27an

I. URTEURRENA

Ignacia Etxabe Oiarzabal

(Angel Arregiren alarguna)

2013ko abenduaren 4an hil zen, 91 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian Bego -

Seme-alabak, bilobak, birlobak, anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizute eta arren etor zaitezela **BIHAR, IGANDEA**, eguerdiko **HAMABIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2014ko abenduaren 27an

II. URTEURRENA

† Jose Ugalde Perurena

-Goian Bego-

Bi urte bete dira joan zinela hemendik baina gure bihotzean jarraitzen duzu oraindik ez dugu erreza izan horrela onartzerik noizbait elkartuko gara guztiok hala nahirik.

BERE SENDIAK

Urteurreneko meza, **BIHAR, IGANDEA, goizeko 10:00etan**, Erefiotzuko **ANTONIO DEUNAREN** parroki elizan. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2014ko abenduaren 27an

Helbidea: Epele-Berri

FUNERARIA

ORBEGOZO

ERRAUSKETAK

24 orduko tfnoa.

943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com

- Zerbitzu partikularrak eta aseguro etxeekin.
- Beilatokiak.
- Errausketak.
- Lekualdatzeak.
- Eskelak, koroak ...

Zentrala HERNANI
Latsunbe, 7

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · ORIO · LASARTE · ERRENTERIA

IGERIKETA HERNANI SARIA

Hiru talde lehian gaur, Hernani Saria lortzeko

Neguko igeriketa txapelketa jokatu da gaur Hernaniko kiroldegiko igerilekuan, goizeko 09:30etan hasita. Hiru talde ariko dira lehian, saririk preziatuena etxera eramateko: Hernani Saria, hain zuzen ere.

IGERIKETAKO Hernani Saria izango da jokoan, gaur, goizeko 09:30etatik aurrera, Hernaniko kiroldegiko igerilekuan.

Hori dela eta, igerilekua itxita egongo da.

Hiru talde, nor baino nor

Txapelketan hiru taldek hartuko dute parte: Buruntzaldeak, Ordizik eta Usurbilgo Uda-
regik.

Bi proba mota egingo dira; bakarkakoak, batetik, eta erreleboka, bestetik.

Azken hori izaten da ikusmin haundiena sortzen duen proba. Izan ere, erreleboka

markarik onena lortzen duen taldeak eramaten baitu etxera eguneko saririk preziatuena: Hernani Saria, hain zuzen ere.

Girorik ez da faltako, beraz, gaur goiz osoan zehar Herna-

niko kiroldegian. Txapelketaren antolatzaileek dei egiten diete hernaniarrei bertaratu eta igerilariak animatzera. Ea Hernani Saria Hernanin bertan gelditzen den! ||



■ FUTBOLA

CD Hernaniko neskek, Gabon giroan

Hernaniko futbolariak Gabon giroan murgilduta dabilta. 12 eta 21 urte bitarteko 80 bat jokalariek elkartu dira egun hauetan, herrian barrena Altxorraren Bila jokoan ibili eta Santa Barbara elkartearen merendola egiteko. Primeran ibili dira, eta antolakuntzak eskerrak eman nahi izan dizkie Santa Barbara elkarteari eta Peio Lorannen txisteei. ||



Manex Iradi, Yohanes Merino eta Xanti Elorza Eibarko krosekoi irteeran.

■ ATLETISMOA

Denboraldi hasiera bikaina, Hernanik

Hernaniko hainbat atletak hartu zuten parte Eibarko Arrate kanpetan egindako Gipuzkoako Kros Txapelketan, eta Anartz Artolak bigarren egin zuen. Donostiako Belodromoan, berriz, pista estaliko denboraldia hasi da, eta hernaniarrak bikain hasi dira. Bestalde, Irungo Gabonetako Krosean bosgarren postua lortu zuen Yohanes Merinok, Anartz Artolak, Mikel Von Wichmannek, Jon Muruak eta Xanti Elorzak osatutako taldeak. ||

■ PALA EMAKUMEA PILOTARI

Hernaniarrak finalean gaur, kiroldegian

Emakumea Pilotari Txapelketako finalak jokatu dira gaur Hernanin, 17:30etan hasita. Aurreneko mailan bi hernaniar elkarren kontra ariko dira: Eneritz Perez, Maider Mendizabalekin batean, Maider Huizi eta Ainhoa Garmendiaren kontra. Bestalde, arratsaldeko 15:30etatik aurrera umeen Gabonetako Txapelketako finalak jokatu dira. Alebinetan Garazi Urdangarin hernaniarrak jokatu du. Benjaminetan, berriz, Maddi Iriondo eta Joana Tolaretxipi sailkatu dira finalerdietarako. ||

■ ESKU PELOTA

Partiduak, asteburuan

Gaur goizeko 10:00etan hasita, eta bihar 11:00etatik aurrera Pilota Eskolako txapelketako bigarren jardunaldia jokatu da Hernaniko forntoian. 40 gaztetxo inguru ari dira lehian. Bestalde, Trinketeko Gipuzkoako Txapelketako partiduak ere jokatu dira gaur eta bihar, Iruran eta Gaskan. Beste zita garrantzitsu bat ere izango da bihar Hernanin: Mexiko eta Euskal Selektzioaren arteko partidua. ||

Ontzi arinak ondo bereizteko zenbait gomendio

BAI		EZ	
Komertzialakoko plastikoko poltsa	Kafe apuraketa kutsa	Medikamentu koaderrak	Ontziak Altxorraren (kutsu eta zefatu)
Aleki papera	Aerosolak	Tonerrak	Loratzari finko gogarrak
Ereki-irratizko lorantzak	Plastikoko botilek, katek eta tetrobricekak	Plastikoko eskuarrak	Jostailuak
Merrubien egurrezko kaxa txikiak			

■ 2015EKO UDAL AURREKONTUAK

«Igerilekuko obra izango da 2015eko inbertsio nagusia»

2015 urterako Udal Aurrekontuak onartu zituen Plenoak: 25.768.267 euro, 2014an baino %2,24 gehiago. Kiroldagiko igerilekuan egingo dute inbertsio haundiena, Gobernu Taldeak azaldu duenez.

25.768.267 euroko aurrekontua onartu du Hernaniko Udalak, 2015 urterako. Aurtengoa baino %2,24 gehiago da hori, 565.576 euro gehiago. Inbertsioak areagotzeko asmoa dauka Gobernu Taldeak, «aprobetxatuz Udalaren zorra inguruko herrietako txikiena dela». Nagusiena, kiroldegiko igerilekua haunditzea izango da.

Abenduaren 18ko Plenoan onartu zituzten aurrekontuak, Gobernu Taldearen aldeko botoekin, eta EAJ, PSE-EE eta Hamaikabat! alderdien kontrakoekin.

Diru sarrerak, haunditu

2015eko Aurrekontuen haunditzea diru sarreretatik dator: «igoera nabarmena izan da transferentzia arruntetan, Foru Aldundiaren ekarpena haunditu delako», azaldu du Aitor Minerrek, Ogasun zinegotziak. Zerga eta tasetatik lortuko dena, berriz, antzekoa izango da, 2014 urtekoaren aldean.

Hirigintzako sarreretan ere aurreikusi dute gorakada: «Young Play dagoen eremuko negozioak martxan jartzean, diru sarrerak izango ditugu», argitu du Luix Intxauspe alkateak. Gainerakoan, mailegu bat ere jaso du Udalak, 450.000 eurokoa, aurrekontuetako sarreraren atalean: «Udalaren egoera ekonomikoa ona da, zorra txikia delako, 1,5 milioi eurokoa, eta aukera geneukan mailegua jasotzeko. Beraz, aprobetxatu dugu».

Hornidura gastuak, gutxitu

Mailegu hori, inbertsio gehiago egiteko baliatuko du Udalak: «hori da bide bat, inbertsio gehiago egiteko. Beste bide bat da, sarrera eta gastuen arteko aldea haunditzea, eta hori lortu egin dugu aurrean. Hornidurretan egin diren lanen ondorioz, gutxiago kontsumitzen du Udalak orain».

Hain justu, 2015eko gastu arruntak, aurrean baino ia 260.000 euro gutxiago izango direla aurreikusi du Udalak, aurrekontuetan.



Kiroldegiko igerilekua haundituko dute 2015ean; horretarako, 1.260.000 euroko inbertsioa jaso dute Udal Aurrekontuetan.

«Diru sarreretan, igoera nabarmena izan da Foru Aldundiaren ekarpena haunditu delako», azaldu du Aitor Miner Ogasun zinegotziak.

Kiroldegiko igerilekua, inbertsio haundiena

Inbertsioak egiteko, 3.134.460 euroko partida jaso du Udalak aurrekontuetan. Horietatik, zati haundi bat kiroldegiko igerilekuari dagokio, 1.260.000 euro: «goizetik gauera, herritar asko pasatzen dira igerilekutik, astean 3.200 pertsona. Eta bost kalerekin, txiki geratzen da», azaldu zuen Beñat Amenabar kirol zinegotziak. Igerilekua haunditzeko, 600.000 euroko dirulaguntza eman dio Gipuzkoako Foru Aldundiak, Udalarari.

«Ondo aztertu beharko dugu lanak nola egin, erabiltzaileei ahalik eta kalte txikiena egiteko», azaldu du Intxauspek. Udan egiten

saiatuko dira, eta beharbada, fasetan. Proiektuak eskatu dituzte, eta laster hasiko dira zehazten noiz egin, nola, zein aurrekonturekin...

Elorribiko zubia, Plaza Berriko lurra, haur parkeak...

Beste hainbat inbertsio ere aurreikusi ditu Udalak, tartean aurrekontu partehartzaileetan zehaztutakoak. Elorribiko zubia egingo dute 2015ean, eta 298.300 euro gorde dituzte horretarako. Floridako bidegorria ere egingo da (130.000 euro), eta Plaza Berriko lurzorua aldatu (128.000 euro).

Haur parkeetan inbertituko dute beste zati bat (165.000 euro): haur parke bat estaltzeko izango

1.260.000 euroko inbertsioa aurreikusi du Gobernu Taldeak, kiroldegiko igerilekua haunditzeko. Aztertuko dute noiz eta nola egin, erabiltzaileei kalte txikiena egiteko.

dira 120.000 euro, eta zenbait parketan hobekuntzak egiteko beste 45.000 euro. Komun publikoak egiteko, berriz, 83.000 euro erabiliko ditu Udalak.

Irisgarritasun plana, adinekoei zuzenduta

Mugikortasuna eta ariketa fisikoarekin lotuta ere, izango da beste inbertsiorik: *Ttipi-ttapa* irisgarritasun plana jarriko dute martxan. Adinekoei zuzenduta dago bereziki, eta ibilbideen mapa bat osatzea izango da helburua.

«Aurrekontuekin, arlo soziala eta tokiko garapena lantzen saiatu gara»

Bi arlo landu nahi izan ditu

Gobernu Taldeak, Udal Aurrekontuekin: arlo soziala eta tokiko garapena. Aurrenekoari dagokionez, Ongintzatik bideratzen diren laguntzak igoko direla jakinarazi dute, eta politika sozialean ere inbertitu egingo dute: bi teknikari eta administrari bat ariko dira lanean, jardunaldi osoz. «Horrekin, helburuetako bat da gazte saila osatzea», argitu du Minerrek.

Tokiko garapenean, berriz, aurrean martxan jarri dira bi proiektu: KOOPeratzen eta Innoforo. «Biek jarraipena izango dute datorren urtean, eta Gabriel Zelaiako eraikinean gero eta zerbitzu gehiago eskaintzea da asmoa». Gara-



Abenduak 18ko Plenoak onartu zituen 2015eko Udal Aurrekontuak, Gobernu Taldearen aldeko botoekin. Oposizioko hiru alderdiek, PSE-EE, EAJ eta Hamaikabatek, kontra bozkatu zuten.

pen Agentziaren sorrera gauzatzeko, 69.000 euro gorde dira.

Zenbait instalazio eta kale konpontzea, aurreikusita

Ezohiko inbertsioez gain, zenbait konponketa beharrezko egitea ere aurreikusten du Udalak: «ez dira beste inbertsioak bezain ikusgarriak, baina instalazioen konponketak ere egin behar dira», azaldu du Aitor Minerrek.

Horrela, ur horniduraren instalazioak konpontzeko, 262.000 euro gorde dira, eta kaleko argi instalazioetarako 70.000 euro. Herriko zenbait kaletan, asfaltatze lanak ere egingo dituzte aurten (45.000 euro).

Oposizioa, kontra

Gobernu Taldearen botoekin onartu ziren aurrekontuak Plenoan, eta kontra azaldu da oposizioa. Horregatik, emendakina aurkeztu dute Hamaikabatek eta EAJk, batetik, eta PSE-EEK, bestetik.

Hi! eta EAJ alderdiek salatu dute, «kanpoko aholkularitza zerbitzuekin eta konfiantzazko pertsonekin» lan egiten duela Gobernu Taldeak, herriko gestioa aurrera ateratzeko. Mailegua jasotzen, bestalde, bide erraza hartzea leporatu diote: «bidegabea iruditzen zaigu; aurrezteko esfortzua egin zezakeen gastu orokorretan, konjelazio fiskala konpentsatzeko».

Horri erantzunez, Minerrek adierazi du ez dela zentzuzkoa zergak igotzea: «gastuak jaitsi dira, KPIa mantendu... Ez dauka zentzurik zergak igotzeak».

Gobernu Taldea: «Fundamentatu gabeko emendakinak aurkeztu ditu oposizioak».

EAJ-Hamaikabat: «bidegabea da mailegua eskatzea; gastuak aurrezteko esfortzua egin zezaketen».

PSE-EE: «igerilekuak haunditzeko, beste aukera batzuk aztertu behar dira, hainbeste gastatzea erabaki aurretik».

PSE-EEeren ustez, berriz, mailegua eskatzekotan, gizar-te zerbitzuetan eta lanpostuen sustapenean gorakada izan beharko litzateke: «bestela, hobe da zorra murriztea».

Atez atekoaren gastuekin, eztabaida

Atez ateko sistemarekin, gehiegi gastatzen dela kexatu dira PSE-EE, EAJ eta Hamaikabat. Sozialistek adierazi dute, Hernanik galdu egin duela: «aurretik, 467.657 euro gastatzen ziren hondakinak jasotzeko. Orain, guztira, 1.832.000 euro». EAJk eta Hamaikabatek, bere aldetik, salatu dute 1,5 milioi ordaintzen zaizkiola Garbitaniari, merkeago egingo

duen enpresarik badagoen aztertu gabe.

Zenbait datu oker erabiltzea leporatu die Gobernu Taldeak, oposizioko alderdiei: «fundamentatu gabeko emendakinak aurkeztu dituzte, datu okerrak edo gezurrezkoak dauzkatenak. Gaizki ikusten dituzte zenbait kontu, edo mamuak ikusten dituzte. Aurreko emendakinak kopia dituzte, eta gutxi landu».

«Inbertsioak, zalantzan»

PSE-EEK zalantzan jarri du aurreikusitako inbertsioak gauzatuko ote diren: «aurreko urteetan, %50a ere ez da egin». Gainera, igerilekuak haunditzeko, adierazi dute beste alternatiba batzuk ere egon daitezkeela, hainbeste gastatu gabe.

Zalantza horien kontra egin zuen Minerrek, Plenoan: «2013an aurreikusitakoaren %87a baimenduta dago, eta %80a exekutatuta. 2014an ere beste horrenbeste izango dela aurreikusten dugu. Martxan daude Karabelgo errotonda, igogailua, Txillida pasealekua... Beraz, gezurra da ez dugula exekututzen».

«Gezurra da Ongintzarako aportazioa ez dela jaitsi»

EAJk eta Hamaikabatek salatu dute, bestalde, Ongintzarako Udalak egingo duen aportazioa jaitziko dela, Gobernu Taldeak kontrakoa esan arren: «gezurretan ari dira esaten dutenean ez dela jaitziko Udalaren aportazioa, eta bai Eusko Jaurlaritzarena. Hain justu, kontrakoa gertatzen da».

Gardentasun falta ere leporatu diote Gobernu

Taldeari: «Bilduk berak aurkeztu zien emendakin bat bere aurrekontuei, azalpenik eman gabe. Konturatu dira, egindako aurrekontuak txapuza bat direla, eta ez datozela errealtatearekin bat».

Emendakina aurkeztearen arrazoia azaldu du Minerrek: «Aurrekontuak aurkeztu genituen, epeak errespetatzeko, eta ondoren, emendakina aurkeztu genuen, aurrekontu partehartzaileetako inbertsioak Aurrekontuetan zehazteko. Eta hori aurpegiratu digute. Gardentasun eza salatu dute, beraiek ere parte hartu duten prozesu batekin».

«Ados gaude inbertsio horiekin», adierazi du PSE-EEK; «ez, ordea, igerilekuetan 1.200.000 gastatzearekin, beste aukera batzuk aztertu gabe».

«Emendakinak Ogasuneko komisioan aztertu beharko lirateke»

PSE-EEK, bestalde, kritikatu du emendakinak Ogasuneko komisioan aztertu ez izana: «Bilduk nahiago izan zuen ixilik egon eta bere aldaketak onartu. Guk gobernatuko bagenu, Udal Aurrekontuak komisioan aztertuko lirateke, parte hartze prozesu baten ondoren, herritarrekin eta oposizioarekin elkarlanean».

Garapen Agentziari ere egin diote erreferentzia sozialistek: «Bilduk bere kasa jarraitu nahi izan du aurrera, eta Aurrekontuek bere postura ahalbidetzen dute, bere Agentzia ereduarekin. Eta gu txiringito berri horren kontra gaude», kritikatu dute. ||

2015eko Udal Aurrekontuak

- Aurrekontu osoa:25.768.267
- GASTUAK:
- Pertsonala:8.114.337
- Ondasun arruntak eta zerbitzuak:9.829.715
- Finantza gastuak:16.600
- Transferentzia arruntak:4.100.366
- Inbertsio errealak:3.134.460
- Kapital transferentziak:109.689
- Finantza aktiboak:100
- Finantza pasiboak:463.000

INBERTSIO NAGUSIAK:

- Kiroldegiko igerilekua: 1.260.000 euro
- Elorrabiko Zubia: 298.300 euro
- Instalazioak-Ur hornidura: 262.000 euro
- Haur parkeak (estali eta hobetu): 165.000 euro
- Floridako bidegorria: 130.000 euro
- Plaza Berriko lurzoru: 128.000 euro
- Irisgarritasun plana: 90.000 euro
- Komun publikoak: 83.000 euro

■ HERRI LASTERKETA

Sei kilometro, euskeraren alde

'Euskaraz bizi nahi dut' eta Inuxente Eguneko lasterketa izango da gaur Astigarragan. 16:30etan txikiak aterako dira eta 17:30etan, nagusiak. Izen ematea, 16:00etatik aurrera.

INUXENTE Eguneko lasterketa aurrea hartuta dator aurten. Gaur izango da eta horrez gain, euskeraren aldeko lasterketa ere izango da. *Euskaraz bizi nahi dut!* leloarekin

antolatu dute Udaleko Kirol Sailak eta Mundarro kirol elkarteak. Joseba Barandiaran plazan izango da irteera eta helmuga.

Adinaren arabera, bi ordu-

tegi izango dira: 16:30etan, 0-5, 6-11 eta 12-16 urtekoek izango dute parte hartzeko aukera, eta 17:30etatik aurrera, 17 urtetik gorakoen txanda izango da. Azken hauek 6 km egin

beharko dituzte.

Izen ematea bertan izango da 16:00etatik aurrera. Prezioa: 5 euro. Astigarrarrei eta bailarako herritarrei parte hartzeko dei egiten diete. ■

■ GABONAK

Olentzero bakarrik ez, Mari Domingi ere etorri zen

Sorpresa ederra hartu zuten umeek asteazkenean. Olentzero espero zuten eta bera bakarrik ez, Mari Domingi ere etorri zen Astigarragara. Santiomenditik jaitsi ziren biak. Kiroldegi parean zain izan zituzten Xaguxarreko kideak eta hainbat ume eta guraso. Herria zeharkatu zuten gabon kantak kantatuz eta Joseba Barandiaran plazan umeen gutunak jaso zituzten. Umeen eskariak jasota, opariak banatzeari ekin zioten gauean. ■



Mari Domingi eta Olentzero gutunak jasotzen aritu ziren Joseba Barandiaran plazan. Argazki gehiago, interneten.

■ PLENOA

Dirulaguntza arautegia bozkatuko da asteartean, alokairu soziala bultzatzeko

Asteartean, Plenoa izango da 19:00etan. Besteak beste, alokairu soziala bultzatzeko dirulaguntza arautegia bozkatuko dute. Udalaren helburua da, etxe hutsak alokairu sozialean jartzea.

EZ OHIKO Plenoa izango da asteartean. Hiru gai izango dituzte aztertzeko eta horien artean alokairu soziala bultzatzeko dirulaguntza arautegia bozkatuko dute. Behin behineko onarpena izango litzateke. Gainerako gaiak: Mendiaundi-Anibar eta Bidebitarte eremu lotuta, Plan Orokorrean egin beharreko aldaketak behin betiko onartzea eta kiroldegiko aldagelak berritzeko proiektua. Arratsaldeko 19:00etan izango da udaletxeko Areto Nagusian.

50.000 euro bideratuko dira Udalak jakinarazi duenez, alokairu soziala bultzatzeko, dirulaguntza arautegi bat onartu zuen Hirigintza Batzordeak pasa den astean. Udalaren hel-

burua da, Astigarragan gaur egun dauden etxe hutsak babes sozialeko alokairuan jartzea, eta horretarako diru laguntzak bideratuko dira etxe hutsen jabeentzat eta maizterrentzat. Honako azalpenak eman dituzte: «guztira, 50.000 euro bideratuko dira. Batetik, 32.000 euro bideratuko dira bere etxe hutsa alokatu nahi duten jabeentzat. Etxean obra egin behar izanez gero, Udalak obraren aurrekontuaren %35a hartuko luke bere gain, 6.000 euroko mugarekin. Etxeak alokatzeko derrigorrezkoa den efizientzia energetikorekin zuztagiria lortzea eta errenta ordaintzen ez duten maizterrengatik babesteko asaguruaren kontratazioa ere lagunduko luke Udalak plan

Etxean obra egin behar izanez gero, Udalak obraren %35a hartuko luke bere gain.

honi esker. Dirulaguntza horiek jasotzearen ordainetan jabeek muga bat edukiko dute alokairuaren prezioa ezartzerako orduan. Obra egin behar izan den etxeetako alokairua, gehienez, 6 €/m²-koa izan beharko da eta gehienez, 500 euroko alokairua izango lukete. Obrarik egin beharko ez balitz, alokairuak, gehienez, 6,5 €/m²-koa izan beharko lukete, eta gehienez, 550 eurokoak».

Diru laguntzen partidaren beste zatia maizterrentzat izango da. «Honen bidez, astigarrarrek ez lukete beren diru sarrearen %50a baina gehiago bideratuko etxearen alokairura», nabarmendu dute. Alokairu hauetara sarbidea izateko zenbait baldintza beharko dira, batik bat, ekonomikoak.

Etxebizitzarena, Euskal Herri osoan arazo larria dela dio Udalak eta krisi ekonomikoak areagotu egin duela: «Udalak espero du momentu zailak bizi dituzten astigarrarrentzat baliagarri izatea laguntza hauek eta etxebizitza bat alokatzeko aukera ere ez duten herritarrek oinarritzak den eskubide hau errazago eskuratu ahal izatea», azaldu du. ■

■ KRONIKA

Bulegorik ez, kiroldegian

Astigarragako Kronikak-Urumeako Kronikak berrantolaketa bat egin behar izan du funtzionamendua hobetze aldera eta hemendik aurrera ez du bulegorik izango kiroldegian. Hernaniko ohiko bulegoan egongo dira langile guztiak (Larramendi 11, behea). Hala ere, orain arte bezala jarraituko du lanean Kronikak Astigarragan, eta edozein albiste edo ohar argitaratu nahi izanez gero, jarri harremanetan orain arte bezala:

astigarraga@kronika.eus edo 688 660 714/943 33 08 99. ■

■ GAZTELEKUA

Lasterketa, gaur

Gazteleketik ere, euskeraren aldeko lasterketan parte hartzeko deia egin dute. Ekintzen barruan sartu dute gaurko lasterketa. Bihar, berriz, Inuxente Eguna ospatuko dute (11:00-14:00). Eta asteartean, Urte Zahar festa antolatu dute. ■

■ ESKU PELOTA

Gurutzealde, Usurbilen aurka

Trinketean, Gipuzkoako Banakako Txapelketako partidua jokatu du gaur Oier Gurutzealde (Mundarro), Mikel Landaren (Usurbil) aurka. 14:15etan hasita, bosgarren partidua izango da Irurako trinketean. Biak pasako dira semifinaletara, baina taldeko lehenengo eta bigarren postuak izango dituzte jokoan. ■

■ TXIRRINDULARITZA

Seigarren saioa

Gipuzkoako Challengeko seigarren jardunaldia jokatu du gaur 16:00etatik aurrera, Belodromoan. Bertan izango dira txirrindulari astigarrarrik. ■

■ PRESO ETA IHESLARIAK

Kontzentrazioa, etzi

Kontzentrazioa egingo dute astelehenean *Preso eta iheslariak* kale-ara lelopean. 20:00etan izango da, Joseba Barandiaran plazan. ■

■ KZ GUNEA

Dinamizatzailea egongo da etzi

KZ Guneko dinamizatzailea bertan egongo da astelehenean, 09:00etatik 13:00etara. ■

GOIZUETA

Eguberrietako tailerrak, astelehenetik asteazkenera

Haur eta Lehen Hezkuntzako haurrentzat izanen dira. Astelehen eta asteazkenean Goizuetan eginen dira, eskolan, eta asteartean, Aranon.

GOIZUETA eta Aranoko Euskara zerbitzuak antolatuta, Eguberrietako tailerrak eginen dira bi herrietan. Haur eta Lehen Hezkuntzako haurrentzat antolatu dira eta 30etik gora umek eman dute izena. Astelehen eta asteazkenean Goizuetako eskolan izanen dira saioak, 10:00etatik 13:00etara, eta asteartean, Aranoko San Roke elkartean. Eskulanak, jokoak, jolasak... eginen dituzte Dindaia fundazioak gidatuta. Begiraleak goizuetarrak izanen dira.

Presoen alde, kontzentrazioa
Ohi bezala, Urte Zahar egunean, presoen aldeko kontzentrazioa eginen dute plazan.

Olentzero eta Mari Domingi
Olentzero eta Mari Domingi Goizuetara ere iritsi ziren asteazkenean eta opari ederak utzi zituzten. ||



Mari Domingi eta Olentzero opariak banatzen aritu ziren. Argazkiak interneten.



Umore Onak eguberrietako kontzertua eskaini zuen abenduaren 19an.

Argazkia: Felix Loiarde

Argazkia: Felix Loiarde

ARANO

Urte Zahar gaueko koplak, gogoan

Garai batean, koplak kantari ateratzen ziren Aranon Urte Zahar gauean. Erramun Huici eta Roke Ansaren testigantzak gogoratu ditu Kronikak.

ASTEAZKEN gauean ez da seguru halakorik izanen, baina garai batean bai. Garai batean koplak kantari ateratzen ziren Aranon, Urte Zahar gauean. 2013ko Miaxiria aldizkarian, Erramun Huici eta Roke Ansak utzitako testigantzak bildu zituzten eta horiek ekarri nahi izan dituzte gogora Kronikak.

Argirik gabe, ez farola, ez litera, ibiltzen zirela gogoratzen zuen Ansak. Hementxe, koplak batzuk:

Zapata zuri paperez
euri denean baterez
nagusi jauna esan zaiguzu
hasiko geran edo ez!
Dios te salbe, ongi etorri
gabon Jainkoak diela
egiarekin kunpli dezagun
urte zaharren despeida/
urte berriyan sarrera.

Gauean, gaupasa egiten zuten herriko baserrietan kantatzera joateko. Batzuetan atarik ez irekitzea ere tokatu zitzaizkien aurrekoei, baina Ansak



Etxez etxe kantuan ibili zirenetako batzuk.

ez zuen gogoan. Zaharrei entzundako koplak, honakoa:
Ematekotan emazu
bestela ezetz esazu
Mari Anttoni deitzen dan hori
alu bizartzu zera zu!

Tailerrak eta erakusketa
Umeentzako jolas tailerrak izanen dira asteartean (10:00-13:00) Aranon. Erakusketa bat ere antolatu dute eskolako umeek egindako lanekin eta

Gabonetan zehar egonen da ikusgai Kontsejun.

Etxez etxe kantari, Olentzero, Miaxiria...
Olentzerok ere badaki Aranorako bidea eta opari ederak ekarri zizkien asteazkenean aranoarrei ere. Horien artean, Miaxiria aldizkaria. Aurretik, etxez etxe ibili ziren kantuan eta bazkaria ere egiten zuten San Roken. ||

GOIZUETA



Zahar Egoitzaren urteurren ospakizuna. Argazki gehiago, interneten.

Argazkia: Felix Loiarde

11 urte ospatzeko, luntxa

Abenduaren 18an, Zahar Egoitzaren 11garren urteurrena ospatu zuten Goizuetan. Luntx baten bueltan elkartu ziren. ||

Olaizola IIak garaipenik ez, binakakoan

Binakako Txapelketa aurrera doa eta Aimar Olaizolak ez du punturik lortu oraindik. Beroizekin osatu du bikotea eta lehengo igandean 22-20 galdu zuten Berasaluze II eta Zubietaren aurka. Ostegunean, berriz, 17-22 galdu zuten Retegi Bi eta Rezustaren aurka. ||

Jon Apezetxeak, irabazi

Jon Apezetxeak Eibarreko jaialdian jokatu zuen lehengo igandean eta ostegunean. Igandean, buruz buru aritu zen Gorkaren aurka eta 18-12 nagusitu zen goizuetarra. Ostegunean, berriz, Larrinagarekin aritu zen eta 18-3 irabazi zieten Jaka eta Pascuali. ||

Iker Salaberriak semifinala, bihar

Iker Salaberria goizuetarrak eta Mariezkurrenak Villabonako txapelketako semifinala jokatuko dute bihar (10:30). Sein eta Arangurenen aurka ariko dira. Final laurdenetan, 22-3 irabazi zieten Oteiza eta Etxeberriari. Bestalde, lehengo astean, Napar jokoetan, kadete mailako finala irabazi zuen Salaberriak, Mariezkurrenarekin. 22-15 nagusitu ziren Oberenaren aurka. Joanes eta Beñat Apezetxea anaiek, berriz, alebin 3garren mailan galdu egin zuten finala, 18-11, Lagunak taldearen aurka. Eta lau t'erdian, banaka, Beñat Apezetxeak 18-14 galdu zuten benjaminetan Iribarriaren aurka. Eta kadeteetan, Antton Apezetxeak 18-10 irabazi zion Olideni. ||

Muxarraren aurka, galdu

Futbitoan, Umore Onak 3-2 galdu zuen lehengo astean Muxarraren aurka. Oihanek eta Anderrek sartu zituzten golak. Orain, bi astez, deskantsua izanen dute. ||

Aritz Zubiriren partidua, gaur

Erremonte jaialdia izanen da gaur Galarretan eta Aritz Zubirik jokatuko du lehengo partiduan. Segurolarekin ariko da Matxin VIa eta Larrañagaren kontra. Asteazkenean, berriz, Otaegirekin jokatu zuen goizuetarrak eta 19-30 galdu zuten Seguro eta Larrañagaren aurka. ||

Goizuetari buruzko saioa, ETB 1en

Urtarrilaren 4an, igandea, Mikel Pagadi eta Zuhaitz Gurrutxagaren *Herri txiki, infernu handi* saioa estreinatuko dute ETB 1en. 21:30etatik aurrera izanen da eta saio honetan, Goizuetan grabatutako irudi eta xelebrekeriak izanen dira ikusgai. Zati bat ikusteko aukera dago interneten. ||

ARANO

Udaletxea irekia, astelehenean

Ostegun hau Urte Berri eguna denez, eta aurrekoa Eguberri Eguna, udaletxea astelehenean egonen da irekia arratsaldean, herritarrentzat. Plenoa ere egun berean izanen da. ||

TELEFONAK • TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 943 55 52 77 (Astigarraga) • UDALTZAINGOA: 092 • DYA: 943 464622
• AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
• ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 (Hernani) 943 33 56 44 (Astigarraga) • JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103
• FARMAZIAK • Egunez: Odriozola URNIETA Idiazabal, 18 943 334014 • Gauez: Aizpuru Latsunbeberri 11 943 336077 (Hernani)

GAUR Goizetik zerua lainotuta izango da, eta eguerditik aurrera zaparradak botako ditu, zarra-zarra. Temperaturak behera egingo da, eta elur-maila 1.200m-ra jaitsiko da. Min.9°/Max.13°

BIHAR Zaparrada mardulak botako ditu eta elurra egingo du 800-900m-tan. Arratsaldean euri gutxiago egingo du. Haizea bizi ibiliko da. Min.6°/Max.9°

EGURALDIA (euskalmet)



EREÑOTZU

Ereñotzun ere, Ametsen kriseiluak botako dituzte asteazkenean

Arratsaldeko 18:30etan da hitzordua. Izena, Irrintzin eman behar da.

HERNANIN bezala, Ereñotzun ere Ametsen kriseiluak botako dituzte zerura, asteazkenean (urtarrilak 31). Gure Esku Dagoren ekimen berria da.

Helburua da bakoitzak bere desioa bertan idaztea eta denak batera zerura bidaltzea. Horretarako, arratsaldeko 18:30etan jarri dute hitzordua.

Enkargatzeko, bihar arte Kriseiluak enkargatzeko, Irrintzin eman behar da izena eta bihar da azken eguna. Animatzeko dei egiten diete ereñotzuarrei. ||

EREÑOTZU

Obrak, internet sarea eta hauteskundeak, hizketagai

Ereñotzuko Auzo Udalak batzarra egin zuen aurreko larunbatean.

AURREKO larunbatean (abenduak 20), Batzar Orokorra egin zuen Ereñotzuko Auzo Udalak. 40 lagun elkartu ziren. 2014 urteko jardueraren eta diru kontuen laburpena azaldu zuten Auzo Udaleko ordezkariak eta hainbat lan eta proiekturen egoera ere bai. Horien artean: Ereñotzuko 17-21 etxeetako ber-urbanizazioa, trafikoa antolatzea eta espaloia jartzea Fagollagan, zebrabide konkordunak jartzea Ereñotzun eta Epelen, eta internet sarea zabaltzea auzoan. 2015eko Auzo Udalerako hauteskundearen inguruan ere aritu ziren. Azalpenen ostean, hainbat eskaera egin zituzten auzotarrak.



40 ereñotzuar gerturatu ziren batzarrera.

Urbanizazioko obrarekin lotuta, etxeetara dijoazen uraren tuberiak herdoilduta daudela ikusita, berriak jartzeko eskaera luzatu zen. Hitz egitekotan gelditu ziren. Ereñotzutik Hernanirako bidean, Eziago parean pa-

sabidea irekitzerik ba ote dagoen ere galdetu zen. Eta Elorrabiko zubi berriaz galdetuta, 2015ean egitekoak direla esan zen. Taberna eta plaza artean zebrabidea jartzea ere aipatu zen. Horrez gain, Ereñotzutik Laxtera oinezko bidea ondo etorriko litzatekeela esatean, Pagoagaraino luzatzea ere eskatu zen.

Espaloietan ez aparkatzeko erremedioa

Espaloien gainean ohituraz

aparkatzen dutenekin zer egin ere izan zen hizketagai. Ekitaldi berezietan, jendeak etxe berrien inguruan, espaloietan eta garaje inguruetan aparkatzeko ohitura hartu duela azaldu zuten eta horren aurrean, erremedioa, Udaltzaingoari abisatu eta futbol zelairantz zuzentzea litzatekeela esan zen. Beste neurri batzuk ere jarri litzatekeela aipatu zen: trafikoko seinale portatil batzuk, espaloietan piboteak... ||

EREÑOTZU



Errondari ekiteko prest. Argazki gehiago, interneten.

Kuadrila ederra ibili zen errondan, etxez etxe

Egoera sakon aztertu eta gero, aurten ez da helduen erronda atera Ereñotzun, baina ume eta gurasoenak ez du hutsik egin. Kuadrila ederra elkartu zen auzoko txoko eta etxe gehienak kantuz alaitzeko asmoz. Lastaolatik abiatu eta Ereñotzun bukatu zuten, bost bat orduko saioa egin ostean. Ugaldetxon ateratako hainbat argazki, interneten daude ikusgai. ||

IRAGARKI MERKEAK

2. eskuko emakume bizikleta erosiko nuke. Deitu: 688 665 045

ETXKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, aurikuloterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

